

KODE ETIKOA ETA JOKABIDE- ARAUAK

2017



2025



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

AURKIBIDEA

Lantegi Batuak: Egitekoa, balioak, xedea eta aplikazio-eremua	2
Printzipio etikoak	4
Jokabide-arauak: Sarrera	5
Jokabide-arauak: Printzipioak	7
Jakinarazpenetarako Barne-kanala: Kanalan	17
Betetzea, indarraldia, berrikuspena eta eguneratzea	18
Glosarioa	19



Lantegi Batuak: Egitekoa, balioak, xedea
eta aplikazio-eremua

Printzipio etikoak

Jokabide-arauak: Sarrera



LANTEGI BATUAK

MISIOA

LANTEGI BATUAK irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta desgaitasuna duten Bizkaiko pertsona guztiei, batez ere adimen- eta/edo garapen-desgaitasuna dutenei, kalitatezko lan- eta okupazio-aukerak ematen dizkie, bai haien garapen eta bizi-kalitate ahalik eta handiena bai gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzeko. Horretarako, ekimen berritzaileak, iraunkorrak eta lehiakorrak garatzen ditu, erakundeko pertsona guztien gaitasunak indartzeko eta haien bizi-proiektua gauzatzen aurrera egiteko laguntza egokiak emateko.

Ekimen iraunkorrak eta lehiakorrak sortzen eta kudeatzen ditu, desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna sustatzen du, gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko hainbat ibilbide ahalbidetuz, orientazioa eta prestakuntza, enplegurako programa okupazionalak eta bereziak, eta enplegu normalizatua lortzen laguntzeko bitartekaritza barne.

BALIOAK

Gure balioak, gure kudeaketa bideratzen duten irizpide eta gidalerrotzat jota, PERTSONA GUZTIEN DUINTASUN BERA aitortzean oinarritzen dira, eta printzipio hauetan gauzatzen dira: duintasunarekiko Errespetua; Justizia eta inklusioa; Autonomia; Pribatutasuna; Zuzentasuna; Bikaintasuna eta eraldaketa; eta Gizarte-kohesioa.

Printzipio horiek pertsonentzako proiektu baten funtsa dira, zeina kudeaketa partizipatibo, etiko, solidario, dinamiko, iraunkor, eraginkor eta efizientean oinarrituta garatzen dugun, berrikuntzara eta aldaketara egokitzeko, lan-egonkortasuna sendotzeko, eta inguruan ditugun pertsonen, bezeroen eta komunitatearen inplikazioaren eta gogobetetzearen alde lan egiteko.

XEDEA

Lantegi Batuak Kode Etikoa eta Jokabide-arauak Lantegi Batuak erakunde-kultura zehazten duten jarduketa-gidalerroen multzotzat jo behar dira, eta gure balioak esplizituak eta agerikoak izan daitezen balio behar dute, bai eta Fundazioaren nortasuna, jarrera etiko arduratsua eta betetze-kultura bateratzeko eta indartzeko ere.

APLIKAZIO-EREMUA

Kode Etikoa eta Jokabide-arauak zuzenean aplikatuko zaizkie Lantegi Batuakeko langile guztiei, bai eta Patronatuko kideei eta gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsona edo erakundeei ere. Zeharka bada ere, Lantegi Batuakekin harremana duten interes-talde guztiei ere aplikatuko zaizkie.

Jokabide jakin batzuk erakunde barruan erantzukizun espezifikoak dituzten pertsonekin lotzeko asmoz, Kodea idaztean honela taldekatu dira pertsona horiek:

- **Pertsona guztiak:** erakundeko langile guztiak eta Patronatuko kide guztiak.
- **Zeharkako postuetan dauden langileak:** zuzendaritza-batzordeko kideak, eta Lantegi Batuak hitzarmen kolektiboan ageri diren A, B eta C lanbide-taldeetako kideak.
- **Kudeaketa-erantzukizuna eta/edo pertsonen erantzukizuna duten kideak (aurrerantzean, arduradunak):** zuzendaritza-batzordea osatzen duten enpleguak, A lanbide-taldeko kideak (kudeatzaileak) eta kudeaketa-erantzukizuna eta/edo pertsonen erantzukizuna duten B lanbide-taldeko kideak (teknikari profesionalak).
- **Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren kideak edo erakundeak:** desgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak erabili ahal izateko eta duintasuna babestua izateko laguntza ematen dieten pertsonak edo erakundeak (gaitasun juridikoa gauzatzeko arreta-edo ordezkartza-laguntzak ematen dituzten senideak, lagunak edo profesionalak).

Zerbitzu Okupazionalako kideak Zerbitzu Okupazionalako Erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharren Gutunak arautzen ditu etikoki eta legez; izan ere, Kode Etiko honetan jasotako jokabide asko ez dira haiei aplikatzekoak, Lantegi Batuakekin duten harremana laguntza-harremana baita, ez lan-harremana.

PRINTZIPIO ETIKOAK

Gure sortze-balioak erreferentzia gisa hartuta, Kode Etikoaren eta Jokabide-arauen agiri honek Fundazioko kideen jokabide arduratsua gidatzen duten printzipio etikoak eta jarraibideak garatzen ditu, betetze-kultura erreal eta etika- eta lege-maila gorenean garatzea eta ezartzea bermatuko duen esparruan.

Premisa horren arabera, Lantegi Batuakeko langileen portaera bideratu behar duten printzipio etikoak zehaztu dira, etika pertsonaleko, bikaintasun profesionaleko eta erakunde-erantzukizuneko goi-mailako estandarrak lortzeko.

DUINTASUNAREKIKO ERRESPETUA

Pertsona guztiak dira baliotsuak berez, duintasun bera dutelako; ondorioz, tratatu ona merezi dute, begirunezkoa eta errespetuzkoa, beren gaitasunak, egoera pertsonal, sozial edo lanekoa edozein izanda ere.

JUSTIZIA ETA INKLUSIOA

Duintasun bera bizitza duinerako eskubide eta aukera beretan gauzatzen da, eta horrek justizia- eta inklusio-printzipioak errespetatzea dakar berekin.

Justiziak diskriminaziorik eza eskatzen du, zuzeneko zein zeharkako diskriminaziorik ez izatea, bai eta laguntzak ematea eta ekintza positiboko neurriak hartzea ere, pertsona guztien inklusioa bultzatzeko eta sustapen soziolaboralerako sarbidea berdintasun-baldintzetan ziurtatzeko.

AUTONOMIA

Laguntzak emanez, modu aktiboan errespetatzen eta sustatzen dira bai autonomia funtzionala, irigarritasun unibertsalaren irizpideei jarraikiz, bai pertsona bakoitzak bere nortasunarekin eta balioekin bat datozen erabakiak hartzeko duen gaitasun autonomoa, bereziki adimen- eta/edo garapen-degaitasuna duten pertsonen kasuan.

PRIBATUTASUNA ETA INTIMITATEA

Pertsonen pribatutasuna eremu guztietan errespetatzen eta babesten da: gorputz-intimitatea, irudia, informazioen eta datu pertsonalen pribatutasuna, etab. Izan ere, zaurgarritasun- eta konfiantza-eremu horretan salbuespenez baino ezin da sartu, edo pertsonaren beraren baimenarekin eta haren onurarako, edo premia-egoeragatik, pertsonari berari edo beste pertsona batzuei kalte larriak saihesteko.

ZUZENTASUNA ETA LEGEZKOTASUNAREKIKO ERRESPETUA

Zintzotasunez, arduraz, objektibotasunez, adostasunez eta autonomiaz egiten dugu lan, baliabideen kudeaketa garden, eraginkor eta efizientea modu jasangarrian garatuz, pertsonen eskubideak eta une bakoitzean aplikatu beharreko lege-betebeharrak errespetatuz.

KONPROMISOA BIKAIN TASUNAREKIN

Maila guztietako esku-hartzeen eta zerbitzuen kudeaketan eta etengabeko hobekuntzan, bikaintasunarekiko konpromisoa dugu: pertsonen garapen soziolaboralean laguntzeko prozesuetan, industria- eta zerbitzu-jardueretan eta ingurumenarekiko errespetuan.

GIZARTE-ERALDAKETA ETA -KOHESIOA

Berrikuntzarekiko eta gizarte-eraldaketarekiko konpromisoa sustatzen da, gizarte bidezkoagoa eta kohesionatuagoa lortzeko, erakundea osatzen duten pertsona guztien eta erakundearekin harremana duten interes-taldearen parte-hartzea eta lankidetzak bultzatuz.



JOKABIDE-ARAUAK: SARRERA

Lantegi Batuaken ustez, bere egitekoa sustatzea bere gizarte-erantzukizun espezifiko da, eta desgaitasuna izanik laguntza-beharrak dituzten pertsonentzako ekintza positiboko neurrien bidez garatzen du, haien autonomia eta gizarteratzea erraztuko duten testuinguru inklusiboak sortzeko eta, horrela, esparru soziolaboralean duten desabantaila-egoera arintzeko.

Illo horretan, erakundeak hainbat gida eta eskuliburu garatu izan ditu historikoki, hala nola “Lantegi Batuaken pertsonekin lan egiteko orientabideak”, “Lantegi Batuakeko desgaitasuna duten pertsonentzako banakako laguntzarako ereduak” eta “Erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren gutuna”; baita hainbat lan-plan eta -protokolo ere, zeinen artean, beren ikuspegi etikoagatik, honako hauek nabarmen daitezkeen: “Berdintasun-plana”, “Jazarpena prebenitzeko protokoloa” eta “Informazio-sistemen erabilerari, segurtasunari eta konfidentzialtasunari buruzko araudiak”. Gainera, Lantegi Batuakek bere egiten ditu giza eskubideen esparruko beste jarduketa-printzipio batzuk, bereziki “Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa” (Nazio Batuak, 2006ko abenduaren 13a) delakoan jasotako desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta horiek Estatuan duten arau-garapena, lan-arloko arauak, ingurumenarekiko errespetuarekin eta ustelkeria desagerraraztearekin lotutakoak, Enpleguaren aldeko Nazioarteko Itunaren (2009) printzipioetan jasotzen den bezala (Lanaren Nazioarteko Konferentziaren Ebazpena – Geneva, 2010eko ekaina).

Horrek guztiak agerian uzten du Lantegi Batuak pertsonen duintasuna eta eskubideak errespetatzen eta defendatzen dituen erakundea dela, eta pertsona horientzat eta, oro har, gizartearentzat ahalik eta onurarik handiena sortzeko helburua duela.

Illo horri jarraikiz, Lantegi Batuakek jokabide-arau hauek ezarri ditu. Arauon bidez, arestian aipatu balioak eta printzipioak nola bete behar diren zehaztu nahi da, eta erakundeko kide guztiek beren lanaren garapenean eta eginkizunetan errespetatu behar dituzte, dagozkien erantzukizun etiko eta legalak bete ditzaten.

Jokabide-arau hauek, printzipio horien inguruan egituratuak, berez ez dute sortzen lehendik ez zeuden betebeharrak, dela erakundearen konpromisoagatik, dela legeagatik, dela aurretik egindako akordioengatik, baina argi eta garbi zehazten dituzte eragileek bete ditzaten, eta, aldi berean, zuzenean eragiten dietenei eta, oro har, gizarteari beteko direla bermatzen diete.

Jokabide-arauak Lantegi Batuaken jarduera eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie, eta zuzenean lotuko ditu erakundeko pertsona guztiak eta zeharka lotutako edozein pertsona edo erakunde (interes-taldeak), baldin eta jardueraren izaerak Lantegi Batuaki edo erakundean lan egiten duten pertsonen eragiten badie.

Alde horretatik, azpimarratu beharra dago erakundeko pertsona guztiek dutela Kode Etiko honetan jasotako jokabideren bat ez betetzeagatik pertsona batek izan ditzakeen arriskuen edo kalteen berri emateko betebeharra, batez ere pertsona hori desgaitasuna izanik ahalmen juridikoa gauzatzeko laguntza behar duen norbait bada.



Azkenik, eta Lantegi Batua keko kide ororentzako gomendio gisa, printzipio etikoen eta jokabide-arauen betetzeari buruz zalantzak sor ditzaketen erabakiak hartzeko orduan, honako kontu hauek aztertzea proposatzen da:

- Nire ustez, erabaki edo ekintza honek aurreko orrietan jasotako balio eta printzipioetakoren bat urratzen du?
- Erabaki hau bat dator Lantegi Batua kekin, lege-esparruarekin, araudia betetzeko programaren esparruarekin, politikekin, prozedurekin eta barne-arauekin, bai eta Kode Etiko honetan jasotako jokabide-arauekin ere?
- Nola baloratuko lukete erabaki hau erakundeko gainerako kideek, beste interes-talde batzuek edo, oro har, iritzi publikoak?
- Erabakiak, publiko eginez gero, izango luke Lantegi Batua ken irudiari eta prestigioari eragingo liekeen inpaktu garrantzitsurik?

Galdera horiek gogoeta egiten eta modu etikoagoan erabakitzen laguntzen digute. Zalantzarik edukiz gero, erakundeko langileek beren Lantegiko, Zerbitzuko, Kudeaketa-unitateko (Industriakoa edo Zerbitzuetakoa) edo Laguntza-arloko zuzendaritza-ardurak dituzten kideekin kontrastatu beharko dituzte erabakiak, edo, hala badagokio, Betetze-unitatearekin, horretarako ezarritako kanalen bidez.

Jokabide-arauak: Printzipioak



DUINTASUNAREKIKO ERRESPETUA

1. Erakundeko kideek errespetuz eta begirunez jokatu behar dute une oro, gainerakoak duintasun berarekin tratatu behar dituzte, eta modu aktiboan baztertu kalte fisiko, psikiko, moral, ekonomiko edo sexuala ekar dezakeen edozein abusu, jazarpen, gutxiespen, bazterkeria edo umiliazio.
2. Pertsona guztiek besteen ezaugarri pertsonalen, izaeren, ideologien, erlijioen, sexu-joeren, kulturen, balioen eta sinesmenen aniztasuna errespetatuko dute, baita haien erabakiak ere, baldin eta beste pertsona batzuen eskubideei eragiten ez badiete. Bazterkeria eragin dezakeen edozein diskriminazio edo estigmatizazio saihestuko dute.
3. Komunikazioetan, Lantegi Batuakeko kideok hizkera sexistak, homofoboak edo ulertezinak erabiltzea ekidindo dugu, eta jendaurrean pertsonen buruzko iruzkin negatiboak, mingarriak eta/edo faltsuak egitea ere bai, marjinazioa, bazterkeria eta/edo pertsonen irudia kaltetzea eragin badezake.
4. Debekatuta dago larderia-, hertsapen-, engainu- eta manipulazio-jokabide oro, baita antzeko beste edozein ere, pertsona bat bere duintasunaren eta eskubideen aurka erabiltzeko.
5. Pertsona guztiek edozein abusu- edo jazarpen-egoeraren berri eman beharko dute, jazarpena prebenitzeko protokoloari jarraikiz, bereziki jakitun direnean tratatu txarra jasaten ari dena bere burua defendatzeko eta gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza behar duen pertsona bat dela.
6. Adingabeak, pertsona kalteberak, mendekotasuna dutenak, desgaitasuna dutenak edo zaurgarriak batera aritzen diren lan-eremuetan, ez da onartuko pertsona horiei kalte edo kalte-arriskurik (fisikoa, psikikoa, morala, ekonomikoa edo sexuala) eragiten dien jokabiderik.
7. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonen kasuan, eskubideak berdintasun-egoeran baliatzeko laguntza behar duten pertsonen eskubideak zaintzeaz eta babesteaz arduratuko dira, eta babesgabetasun- edo zaurgarritasun-egoeretan daudenean arreta berezia jarriko dute haien defentsan.
8. Kudeaketa-erantzukizuna eta/edo pertsonen erantzukizuna duten pertsonen dagokienez, pertsona guztiek beren eskubideak eta betebeharrak uler ditzaten laguntzen saiaturiko dira, bai eta bizikidetzara-arauek ere, gainerakoaren eskubideak errespetatzeko. Era berean, beharrezko laguntza emango dute bereziki jendaurreko edozein interakzio edo iruzkin zuzentzeko, baldin eta tratatu iraingarria edo errespetu gutxikoa badakarte.
9. Arduradunek kide bakoitzak lortzen dituen emaitzak aldizka ebaluatzen direla ziurtatuko dute, bai garapen soziolaborala eta/edo enplegarritasuna hobetzeari bai emaitza pertsonalei dagokienez.
10. Arduradunek kide guztientzako lan-aukeren eskaintza erraztuko dute, haien gaitasunak eta mugak aintzat hartuta.
11. Arduradunek, laguntzaren eta prestakuntzaren bidez, gaitasun berriak bereganatzea sustatuko dute, pertsonen garapen soziolaborala bultzatzeko eta, ondorioz, haien enplegarritasuna eta lan-munduan txertatzeko aukera areagotzeko.
12. Pertsonen duintasunarekiko errespetua bermatzeko, gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsonen edo erakundeen eta/edo tutoreen (adingabeak badira) Lantegi Batuakeko profesionalekin lankidetzan jardungo dute ordezkatzeko dituzten pertsonen duintasuna eta eskubideak babesteko, dagozkien berdintasun-baldintzez gozatzea ahalbidetzeko.



JUSTIZIA ETA INKLUSIOA

13. Erakundeko kideek ez dute Lantegi Batuak berdintasun-plana erreferentzia gisa hartuta diskriminaziorik eragiten duen portaerarik izango, iruzkinik egingo edo erabakirik hartuko, eta tratu txarrak, irainak edo esplotazioa dakarren edozein egoera salatuko dute.
14. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonen, beren eginkizun guztietan, ideologia, erlijio-sinesmen, sexu-joera, desgaitasun edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatiko diskriminazio-jokabide oro saihestuko dute, eta aukera-berdintasunaren irizpidearen arabera jokatu dute.
15. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonen irizpide objektibo, garden, argi eta ulergarrien arabera jokatu dute, aukera-berdintasuna bermatze aldera aurreiritziak eta faboritismoak bazter utzita.
16. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonen laguntza-premia handiagoak dituzten pertsonen inklusioa sustatuko dute, erakundeak eskaintzen dituen estrategiak erabiliz (orientazioa, prozesuen sekuentziazioa, prestakuntza-ibilbideak, lanpostuen eta teknologien egokitzapena, etab.), lanpostua edo zeregina pertsonari ahalik eta gehien egokitzeko eta lan-harreman egokiak izan ditzan.
17. Hautaketa- eta kontratazio-prozesuetan erantzukizuna duten pertsonen desgaitasuna, bereziki intelektuala eta garapeneko, duten pertsonen kontratazioa sustatuko dute, eta barne-deialdietan lehenetasuna emango diete, betiere balorazio objektiboetan oinarritutako ekintza-neurri positiboen bidez.
18. Era berean, arduradunek modu pertsonalizatuan tratatuko dituzte pertsona guztiak, norberaren plan pertsonalaren arabera, haren nahiak kontuan hartuta, eta haren behar zehatzen arabera laguntzak eta egokitzapenak ezarrita, pertsonalizazio horrek inolako diskriminaziorik sortu gabe.
19. Arduradunek baliabideak, prestakuntzak eta ezagutzak eskainiko dituzte komunikazio irisgarrian aurrera egiteko, bai ahozkoan bai kognitiboan, laguntza-premia handiagoak dituzten pertsonak hala gizarte- eta lan-harremanetan nola lan-ibilbidea hobetzeko aukeretan baztertzea eragotziko duen horretan, hain zuzen ere.
20. Arduradunek Lantegi Batuak adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea sustatzen eta baztertuak edo bereiziak izatea saihesten duten lanpostuen bilaketa eta eskaintza lehenetsiko dituzte, komunitatean enplegua sustatzeko, eta lekuetan eta zerbitzuetan (lantegiak, unitateak...), baita kudeaketa-lanpostuetan ere, pertsonen aniztasuna bultzatzeko.
21. Justizia- eta inklusio-printzipioa betetzeko helburuz, gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsonen edo erakundeek eta/edo tutoreek (adingabeak badira) beharrezko informazioa emango diote Lantegi Batuak pertsonen enplegu-ibilbidean bazterkeria-egoerak saihesteko. Era berean, interes-gatazkarik izanez gero, proposamen orekatuak eta bidezkoak bilatuko dituzte tartean diren pertsona guztiekin.



AUTONOMIA

22. Erakundeko kide guztiek pertsonak beren kontuei, ondasunei eta bizitza pribatuari buruzko erabaki libreak hartzea baldintzatuko duten hertsapenak, manipulazioak eta bidegabeko beste eragin-mota batzuk saihestuko dituzte.
23. Zeharkako lanpostuetan dauden kideen kasuan, langileen autonomia errespetatuko dute beren jardun-esparruaren barruan, haien iritzia entzungo dute, haien balioak errespetatuko dituzte eta eragiten dieten erabakietan parte har dezaten sustatuko dute, manipulazio- eta gehiegizko babes-harremanak saihestuta.
24. Zeharkako lanpostuetan dauden kideek langileak haien lan-ibilbidea eta banakako laguntzak lantzen eta ebaluatzen parte hartzera bultzatuko dituzte, entzuketara aktiboa sustatuz eta edukiak hartzailearen hizkuntzara egokituz (beharrezko komunikazio-laguntzak aurreikusita eta eskainita). Halaber, jokabide desegokiak, kexak, zalantzak edo iradokizunak jakinarazteko prozedurei buruzko informazioa emango dute, eta prozedurok eraginkortasunez erabiltzeko beharrezko laguntza ere bai.
25. Zeharkako lanpostuetan dauden kideek langileen estimu pertsonala edo taldekoa, irudia edo ohorea kalte dezaketen iruzkin eta jarduera publikoak saihestuko dituzte, eta ohar eta zuzenketa guztiak modu pribatuan egingo dituzte.
26. Orobat, dagokion arduradun baimenduak laguntza emango die laguntzeko kanpoko erreferenteei eta/edo gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsona edo erakundeei, gizarte- eta lan-esparruan sortzen diren premiei aurre egiteko, betiere pertsonentzako ahalik eta onurarik handiena lortzea eta haien autodeterminazio-gaitasuna garatzea xede.
27. Dagokion profesionalak harreman egokia izango du laguntzako kanpoko erreferenteekin eta/edo gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsona edo erakundeekin. Haien ikuspuntuak, iradokizunak eta proposamenak entzuteko eta haiekin hitz egiteko jarrera agertuko du, eta laguntza jasotzen duten pertsonen eskubideak babesteko eta gizarte- eta lan-garapenerako behar dituzten gaiei buruzko informazioa emango die, bai laguntza-plan pertsonalei bai Lantegi Batuak funtzionamenduari dagokienez.
28. Arduradunak langileei (eta, hala badagokio, laguntzeko kanpoko erreferenteei eta/edo gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsona edo erakundeei) beren egoera pertsonalari edo lan-egoerari eragiten dioten balorazio, erabaki, informazio eta esku-hartzeen berri emango die, informazioa modu ulergarrian, osoan, zintzoan eta egiazkoan ezagutzeko eskubidea baitute.
29. Kudeaketa-erantzukizuna eta/edo pertsonen erantzukizuna duten kideek, beren erantzukizun-eremuan, pertsonen autonomia eta gaitasun librea garatzea eragozten duten edozein motatako oztopoak (fisikoak, linguistikoak, komunikatiboak, kognitiboak, kulturalak, etab.) desagertzea ahalbidetuko dute.
30. Gainera, pertsonen autonomia jorratzeko, gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsonak edo erakundeak eta/edo tutoreak (adingabeak badira) Lantegi Batuakeko profesional erreferenteei desgaitasuna duen pertsonaren edo beste pertsona batzuen segurtasunari eragin diezaiokeen guztiari buruzko informazioa emango diete, baita haien eskubideak babesteko beharrezko informazio juridikoa, sanitarioa eta soziala ere. Informazio hori konfidentzialtasunez erabiliko da, eta Lantegi Batuakeko profesionalak bakarrik ezagutuko dute, baldin eta garapen soziolaboralerako beharrezko laguntzak eta egokitzapenak errazteko behar badute.



PRIBATUTASUNA ETA INTIMITATEA

31. Erakundeko pertsona guztiek intimitaterako eta konfidentziasunerako eskubideak errespetatuko dituzte beste pertsona batzuen informazio pribatua eskuratzen duten kasu guztietan. Datu pertsonalak babestuko dituzte, bereziki osasunari eta datu ekonomikoei buruzkoak, eta, oro har, edozein datu edo informazio pribatu.
32. Erakundeko inork ezin izango ditu, baimenik gabe, pertsonak grabatu edo haien irudirik hartu instalazioetan eta lantokietan, bereziki haien irudia eta ohorea kalte dezaketen egoeretan. Irudi pertsonalak ez dira inola ere argitaratuko, fisikoki edo telematikoki, pertsonaren baimenik gabe.
33. Pertsona guztiek isilpean gorde beharko dute bai Lantegi Batuak egiten duten jarduera garatzean bai bezeroekin eta hirugarrenekin duten harremanean edozein formatu fisiko edo digitaletan eskuratutako informazio oro.
34. Erakundeko pertsonak jabetza intelektual eta industrial errespetatzen direla zainduko dute, bai eta produktuak, zerbitzuak, programa informatikoak, eskuliburuak, ekipamenduak, eduki grafikoak eta ikus-entzunezkoak, prozesuak, teknologiak, ezagutzak eta, oro har, Lantegi Batuak edo hirugarrenek garatutako gainerako obrak eta lanak erabiltzeko eskubidea ere.
35. Pertsona guztiek eskura dituzten bitarteko informatikoak erakundeak zehaztutako Informazioaren Segurtasunerako irizpideen arabera erabili beharko dituzte, eta eskuragarri dituzten teknologiak zentzuz eta etikoki.
36. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonen kasuan, informazioa isilpean gordetzeko betebeharra beteko dute, batez ere pertsonen informazio soziosanitarioa, eta, bereziki, adimen-degaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboarena. Informazio hori inori ez jakinarazteaz gain, dagoena ondo babestuta egon behar da. Konfidentziasun- eta sekretu-betebehar honek badiu salbuespenezko egoerak; zehazki, pertsona une jakin batean ez denean gai aldi baterako eta, babestuta egon dadin, haren informazio pribatua eman behar denean, edo informazioa beharrezkoa denean hirugarrenei edo erakundeari berari kalte edo lesio handiak saihesteko. Halako kasuetan, arrisku horiek ekiditeko beharrezko informazioa dagokion neurrian eman beharko da, ez gehiago, pertsonaren baimenik gabe.
37. Arduradunek informazioa emango diete erakundekoak ez diren laguntzarako pertsona erreferenteei eta/edo ezarritako gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsona edo erakundeei, ahal dela bai pertsona bai haren ibilbide soziorabolean aldaketak eragingo dituzten edo hura arriskuan jar dezaketen jardueri buruz erabakitze beharrezko gaiak ezagututa. Degaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko araudiaren arabera, pertsonaren baimenik gabe ez da bestelako konturik jakinaraziko.



ZUZENTASUNA ETA LEGEZKOTASUNAREKIKO ERRESKETUA

38. Erakundeko pertsona guztiek bete beharreko legezko betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuko dute, baita Kode honetan jasotako jokabide-arauak eta -jarraibideak ere, eta barne-kudeaketako arauak eta prozedurak ere bai.
39. Lantegi Batuakeko pertsonak Segurtasun- eta Osasun-arauak errespetatuko dituzte, ekipamenduak babesteko bitartekoak arduraz erabiliz, segurtasun-seinaleei eta -jarraibideei jarraituko diete, eta lankideen artean segurtasunarekin, osasunarekin eta arriskuen prebentzioarekin lotutako ezagutzak eta jardunbideak zabalduko dituzte.
40. Erakundeko pertsona guztiek nahitaez eman beharko diete arloko, zerbitzuetako edo lantegietako arduradunei pertsonen osasunerako eta segurtasunerako arriskuen eta/edo erakundeko edozein langileren edo erakundearekin harremana duen edozeinen eskubideen urraketaren berri, halakorik dagoela dakitenean.
41. Lantegi Batuakeko pertsonak ezin izango dute onartu (edo eskatu) inolako pertsona edo erakunderen oparirik, detainerik, zerbitzurik, eskudiruzko ordainketarik edo bestelako mesederik, baldin eta beren objektibotasunean edo erabakiak hartzerakoan eragina izan badezakete, eroskeria, funtzionario-eroskeria edo beste delitu-motaren bat gertatzeko arrisku oro saihesteko. Baimendutako kasuetan, sustapenerako opariak, gonbidapenak eta detaileak erakundearen esku jarriko dira. Kategoria horren barruan ez daude sustapenerako opariak edo propagandarako objektuak, gonbidapen arruntak (gizarte-usadioak eta kortesiazkoak) eta noizbehinkako detaileak (eskudirutan izan gabe eta erakundeak ezarritako mugen barruan: gutxi gorabehera 100 €-tik beherakoak).
42. Lantegi Batuakeko pertsonak ezin izango dute eskaini, ez zuzenean ez zeharka, oparirik, zerbitzurik edo mesederik eurekin harremana duten hirugarren publiko edo pribatuaren erabakietan legez kontra eragiteko helburuz.
43. Erakundeko pertsona guztiek gizartearen eta erakunde publiko edo pribatuaren aurrean Lantegi Batuak izen ona kalte dezaketen eta haren jarduerari eta/edo irudiari ondorio txarrak ekar diezazkieketen jokabideak saihestuko dituzte, legea urratu ez arren.
44. Lantegi Batuak eragiketa eta transakzio guztiak legeari jarraikiz egingo dira, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla ziurtatuta, eta dagokion unean erregistratuko dira kontabilitatean, existentziaren, osotasunaren, argitasunaren eta zehaztasunaren irizpideak beteta, une bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate-araudiaren arabera.
45. Lantegi Batuakeko pertsonak kapital-zuriketaren aurkako legeak bete eta funtsak iturri legitimoetatik bakarrik jaso beharko dituzte.
46. Lantegi Batuakeko pertsonak, agintariekin eta ordezkari publikoekin dituzten harreman guztietan, begirunez eta aplikatu beharreko legeriaren arabera jokatu dute beren fundatze-interes legitimoak sustatzeko eta defendatzeko, eroskeria- eta ustelkeria-mota oro gaitzetsita.
47. Erakundeko pertsona guztiek, eragiten dieten egoeretan, erakundeak hartu beharreko erabakietan parte hartzea edo tartean sartzea saihestuko dute, independentzia babesteko, interes pertsonalen (edo interes ekonomiko, familiar eta adiskidetasunezkoen ondoriozkoak) eta bezero, hornitzaile edo laguntzaileekiko interes profesionalen arteko egoerak edo gatazkak daudenean. Interes-gatazka ororen berri ematera behartuta egongo dira, mesede-tratua baztertuta.
48. Lantegi Batuakeko pertsonak nahitaez errespetatu beharko dituzte instalazioak, beren eskura jarritako edo beren jarduerekin lotutako baliabide materialak behar bezala erabiliz.
49. Lantegi Batuakeko inork ez du erakundearen elementurik erabilera pertsonaletarako baliatuko, ezta eskuratzeko edo erabiltzeko berariazko baimen idatzi bidez baimenduta ez duten elementurik ere.
50. Erakundeko pertsona guztiek, eragiten dieten egoeretan, informazioa egiazkotasunez eman beharko dute, bere osotasunean eta modu ulergarrian, beren interes-taldeekin dituzten harremanetan. Inola ere ez dute emango, jakinaren gainean egonik, informazio okerra, gezurrezkoa edo zehaztugabea.

51. Erakundeko pertsona guztiek ingurumen-arauak eta -jarraibideak errespetatuko dituzte, bai baliabideak egokiro erabiltzeko bai ingurugiroa zaintzeko eta babesteko, ingurumen-inpaktua murriztu ahal izateko.
52. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonen kasuan eta beren jarduera-eremuaren barruan, ordainketa-modu onartezinak edo susmagarriak detektatzeko eta eragozteko arrazoizko neurriak hartu beharko dituzte, eta, horrekin lotutako susmorik edo kezkarik izanez gero, beren arduradunei jakinarazi edo ezarritako bideak erabiliz salatu beharko dute.
53. Kudeaketa-arduradunek bermatuko dute, langile berriak lanean hasteko eta barne-mugimenduko prozesuetan, zintzotasunez eta arduraz, eraginkortasunez eta efizientziaz jarduten dela, alegia, erakundearen barne-baliabideak optimizatuz eta betiere pertsonen segurtasuna eta osasuna zainduz.
54. Arduradunek ingurumen-arloko lege-betekizunak betetzeko ezarritako arauak errespetatuko dituzte, hala hondakinak bereizteko eta eraginkortasunez kudeatzeko nola pertsona guztiek barne-baliabideak zentzuz erabiltzeko orduan, ingurumen-inpaktua minimizatzeko eta energia-eraginkortasuna eta jasagarritasuna hobetzeko.
55. Arduradunek lan-ingurune osasungarri, irisgarri eta segurua bermatuko dute, eta zereginak betetzea lanpostuak egokituz eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza emanez erraztuko dute.
56. Zeharkako arretako profesionalek, Zerbitzu Okupazionalari dagokionez, ezarritako legezko betebeharrak guztiak beteko dituzte eta Bizkaiko Gizarte Ekintza Sailarekin beharrezko koordinazioa egingo dute.



KONPROMISOA BIKINTASUNAREKIN


57. Erakundeko pertsona guztiek profesionaltasunez egin beharko dituzte beren jarduerak bezero eta laguntzaileen aurrean. Bereziki:
- Erakundeak bezero, hornitzaile eta laguntzaileekiko harremanetarako ezarritako gidak, prozedurak eta barne-arauak gorde eta beteko dituzte.
 - Bezero, hornitzaile eta laguntzaileen datuak ez dituzte asmo txarrez erabiliko, baizik eta datuok eskuratuta bete nahiren helburuak lortzeko baino ez, eta betiere erakundeak baimendutako sarbide-mailaren arabera. Espresuki debekatuta dute datuak hirugarrenei saltzea edo lagatzea.
 - Bezeroei informazio egiazkoa eta egokia emango diete, erakundeak eskainitako ondasun eta zerbitzuei dagokienez.
 - Beren produktuak eta zerbitzuak saltzean edo merkaturatzean ez dute adierazpen faltsurik edo engainagarriarik egingo.
 - Beren lana ezarritako kudeaketa-estandarrak betez egiteko konpromisoa hartuko dute, hots, zereginak kontu handiz eta segurtasunez betez eta etengabeko hobekuntza bilatuz.
58. Lantegi Batuakeko pertsona guztiek jarrera proaktiboa izango beren gaitasunak hobetzeko eta beren ezagutzak eta trebetasunak areagotzeko, garapen profesionalaren oinarri gisa, bikaina egiteko.
59. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonak bezeroen edo laguntzaileen datuak benetakoak direla egiaztatu beharko dute, egiazkoak direla ziurtatzeko eta bezeroen eta beste erakunde batzuen zerrendetan ez dauden identitateak sortzeko ahalegin oro saihesteko.
60. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonak ardurazko jarrera izango dute beti (bezeroei begira, nagusiki), baita besteekin lankidetzan, malgutasunez, eraginkortasunez eta talde-lanean aritzeko ere, eta berrikuntzarako joera iraunkorrari eusten saiatuko dira, eskaintzen diren produktuen eta zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzea xede.
61. Zeharkako lanpostuetan dauden pertsonak etengabe egingo dute, beren jarduera-eremuan, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko prozesuen kudeaketan bikaintasuna eta berrikuntza hobetzearen alde, pertsona horiek erakundearen bezero nagusiak diren aldetik, horrela misioaren helburuak betetzen direla bermatzeko.
62. Prozesu espezifikoetako arduradunek kudeatutako baliabide publikoen (hitzarmenak, laguntzak, hobariak eta dirulaguntzak) kontrola eta ikuskapena bermatuko dute, ezarritako baldintzak eta zuriaketak beteta eta egindako lana baliozkotuko duten auditoretza-prozesuen mende jarrita.
63. Hornitzaileak hautatzeko eta esleitzeko arduradunek administrazio-eskakizunek eta erakundearen barne-irizpideek ezarritako prozedurei jarraituko diete, modu zuzen eta inpartzialan, bai eta indarrean dagoen araudiaren arabera aplikatu beharreko gardentasun publikoko eskakizunei ere.
64. Erosketa-prozesuetako (materialak eskuratzeko zein zerbitzuak kontratatuzko) arduradunek exijituko diete hornitzaileei beren ekonomia-jardueraren alorretako legezko xedapenak errespetatzea, erakundeari ematen dizkieten zerbitzuei eta, bereziki, pertsona juridikoen erantzukizun penalararekin lotutako delituei dagokienez.
65. Arduradunek oinarrizko printzipioak errespetatzen dituzten hornitzaile eta laguntzaileekin izango dituzte harremanak, eta, haien ordenamendu juridiko, sozial, ekonomiko eta kultural erreferentea kontuan hartuta, erakunde hornitzaile eta laguntzaileentzako etika- eta jokabide-printzipioen arauak jakinaraziko dizkiete.
66. Arduradunek arretaren eta koordinazioaren kalitatea sustatuko dute erakundekoak ez diren laguntzarako pertsona erreferenteekin eta/edo gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren ezarritako pertsona edo erakundeekin duten harremanean, eta txertatzen diren inklusio soziolaboralerako proposamenetan kontuan izango dute haien parte-hartzea.



dute
lan

GIZARTE-ERALDAKETA ETA -KOHESIOA

67. Erakundeko pertsona guztiek ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko konpromisoa izan beharko dute, beren jardueren inpaktua minimizatzeko eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzeko.
68. Zeharkako langileei dagokienez, gizartea desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz sentsibilizatzen lagunduko dute, beren aukeren eta eragiteko gaitasunaren barruan. Hortaz, horretarako sortutako foro eta sareetan parte hartuko dute, gizarte gero eta inklusiboagoa lortzeko helburuz.
69. Arduradunek erakundeen arteko lankidetza-prozesuak garatuko dituzte sektore publiko eta pribatuarekin, desgaitasuna duten pertsonen inklusio soziorabazala enplegu normalizatueta sustatzen duten erakunde eta entitateei lagunduz eta haiekin lankidetza aktiboan jardunez, pertsona horiek ez dezaten bazterkeriarik eta gizarte-diskriminaziorik jasan.
70. Arduradunek desgaitasuna duten pertsonak aldaketa-eragile gisa dituzten gaitasunak bultzatzera bideratuko dituzte beren jardura eta estrategiak, arrazoi instituzionalak, politikoak, ekonomikoak edo pertsona horiek gizartean baldintza beretan parte hartzea kolokan jartzen duen beste edozein arrazoi lehenetsi gabe.
71. Pertsona guztiak Lantegi Batuakekin elkarlanean aritzen diren eragileen sentsibilizazioarekin konprometituta egongo dira; horretarako, desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak eta gizarte-ekarpenak nabarmenduko dituzte.
72. Arduradunek beren ingurunearen gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunari laguntzeak duen garrantziaz jabeaziko dute dagokien balio-katea.



Jakinarazpenetarako Barne-kanala: Kanalari

Betetza eta indarraldia

Zabalkundea, berrikuspena eta
eguneratzea



JAKINARAZPENETARAKO BARNE-KANALA: KANALAN

Dokumentu honetan ezarritako jokabide-printzipioak eta -jarraibideak dokumentuaren aplikazio-eremuan zehaztutako pertsona guztien erantzukizuna dira, eta denek bete behar dituzte, salbuespenik gabe. Lantegi Batuakek eskatzen die legeak, araudia betetzeko programa edo Kode Etikoaren eta Jokabide-arauen agiri honetan nahitaez bete beharrekoak diren printzipio etikoak eta jokabide-arauak urratzen dituen edozein jokabideren berri eman dezaten.

Zuzendaritza-eginkizunak betetzen dituzten edo erantzukizun-lanpostuetan dauden pertsonak eredu izan behar dute printzipio hauen betetzean, ezarritako estandar, jardunbide eta jokabide etikoen inolako urraketarik onartu gabe.

Printzipio etikoak sustatzeko eta dilema etikoak ebaztea errazteko, Lantegi Batuakeko Patronatuak, bere Kontseilu Betearazlearen bitartez, [Jakinarazpenetarako Barne-kanala - KANALAN](#) deritzon sistema sortu du. Era berean, Kanal horren funtzionamendu-printzipioak azaltzeko politika zehaztu du.

Kanalak, halaber, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen eskakizunak betetzen ditu.

Jakinarazpenetarako Barne-kanala erakundearekin harremana duten pertsona guztien eskura dago, eta printzipio etikoen eta jokabide-arauen edozein urraketa jakinaraztea ahalbidetzen du du. Horrez gain, haren bidez honako gai hauekin lotutako kontuen berri eman daiteke: iruzurra eta ustelkeria, kapital-zuriketa, jazarpena, integritate morala, aukera-berdintasuna, enpresa-sekretuen zabalkundea, intimitatea, osasun publikorako arriskuak edo segurtasuna eta osasuna, baita legez kanpoko jokabideak ere, 2/2023 Legearen aplikazio-eremuetan ezarritakoaren arabera.

Gainera, Kanalaren bidez Kode Etikoaren eta bertan adierazitako printzipioen aplikazioari buruzko zalantzak argi daitezke, baita betetze-programaren gainekoak ere.

Lantegi Batuakeko Kontseilu Betearazleak onartutako kide anitzeko organo batek fede onez eta erantzukizunez egindako edozein jakinarazpen jaso, kudeatu eta ebazten du.

Halaber, erakundeak zuzeneko arduradunekin hitz egitera animatzen du, hala nola begiraleekin, zerbitzuko edo lantegiko arduradunekin, laguntzeko teknikariek eta bulego zentraletako laguntzaileekin, beharra duenak bere kezka zuzenean jakinaraz diezazkien eta horrela, ahal den kasuetan, eraginkortasun handiagoz ebatz ditzaten, eta, nolanahi ere, Jakinarazpenetarako Barne-sistemako kide anitzeko organoan kudeatzeko pertsona egokiei edo dagozkion kanaletara bideratzeko.

Kanal honek arau-hauste bat jakinarazi nahi duen edonork horretarako modua izatea bermatzen du, haren egoera pertsonala edo profesionala edozein izanda ere, haren nortasunari eta jakinarazitako informazioari buruzko konfidentzialtasuna erabat ziurtatuta, jakinarazpena egiteagatik laneko errepresaliarik edo kalterik edo errepresalia edo kalte profesionalik jasan gabe, eta inplikaturako pertsonen intimitate-, defentsa- eta errugabetasun-eskubideak errespetatuta. Informatzaileak bermatuta izango du informazio-eskuragarritasuna, posible denean.

Ikertetek datuen babesari, pribatutasunari eta agintaritza judizial eta administratiboetik harremanari buruzko legeko betekizun guztiak betetzen dituzte. Jakinarazitako egitateen gaineko informazio nahikoa ematen duten jakinarazpenak bakarrik prozesatzen dira. Hala Kode Etikoa nola indarreko legeria edo betetze-programa urratzen duten jokabideei buruzko jakinarazpenak kudeatzen dira; gainerakoak ezetsi edo kudeaketa-kanal egokietara bideratzen dira.

BETETZEA

Lantegi Batuaken Kode Etikoak eta Jokabide-arauek, KANALAN - Jakinarazpenetarako Barne-kanalarekin eta Betetze-politikarekin batera, erakundearen Betetze-programa osatzen dute.

Arauak Betetzeko Batzordeak, Betetze-unitatearen eta erakundearen beste bitarteko batzuen bidez (langileen harrerak, sentsibilizazioak, etab.), printzipio horiek sustatzen eta zabaltzen ditu. Orobat, Jakinarazpenetarako Barne-kanaleko kide anitzeko organoaren bitartez balizko urraketak kudeatuko dira, dagozkion ikerketak eginez eta indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren arabera diziiplina-zehapenak proposatuz, beste erantzukizun batzuk alde batera utzi gabe.

INDARRALDIA

Lantegi Batuaken Kode Etikoa eta Jokabide-arauek Lantegi Batuakeko Patronatuak onartzen dituen egunean sartuko dira indarrean.

ZABALKUNDEA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA

Lantegi Batuaken Kode Etikoa eta Jokabide-arauek Lantegi Batuakeko langile guztiei banatuko zaizkie. Berriazko prestakuntza-ikastaroak egingo dira behar bezala ulertzen eta benetan betetzen direla bermatzeko. Gainera, Kode Etikoa eta Jokabide-arauek Lantegi Batuaken barne-sarean (intralan) eta webgunean (www.lantegibatuak.eus) egongo dira eskuragarri.

Araudia Betetzeko Batzordeak aldian-aldian berrikusiko du Kodea, jakinarazitako gorabeherak eta kontsultak kontuan hartuta, baita kanpoko eta barruko testuinguruetan izandako aldaketak ere. Batzordeak moldaketak proposatuko dizkio Kontseilu Betearazleari eta hark, egoki baderitzo, Patronatuari helaraziko dizkio.

Patronatuak **edo, eskuordetza izanik hala badagokio, Kontseilu Betearazleak berak** izango du Kode Etikorako eta Jokabide-arauetarako proposatutako aldaketak onartzeko erantzukizuna.



Glosarioa



GLOSARIOA

Arauak Betetzeko Batzordea: Lantegi Batuakeko kontrol-organoa, Arauak Betetzeko Programa ezartzeaz eta bai hura bai, bereziki, Kode Etikoa eta Jokabide-arauak behar bezala aplikatzen direla gainbegiratzeaz arduratzen dena.

Arauak Betetzeko Unitatea: Arauak Betetzeko Batzordearen erabakiak betetzen direla zaintzeko unitatea.

Banakako laguntza-plana: desgaitasuna duten pertsonen ematen zaizkien laguntzen multzoa, haien bizikaltasuna hobetzeko. Ildo horretan, adimen- eta/edo garapen-degaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako jardura, programa eta baliabide guztiak izendatzen ditugu laguntza.

Berdintasun-plana: Lantegi Batuak emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeko zein urrats egin behar ditugun adierazten digun tresna.

Betetze-programa: arrisku penalak prebenitzeko eta kudeatzeko pertsona juridiko batean ezarritako kudeaketa-sistema, erakundearen beharren arabera.

Diskriminazioa: Kode honen ondorioetarako, diskriminazioa da sexuagatik, ideologiagatik, erlijio-sinesmenengatik, sexu-joeragatik, desgaitasunagatik edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozialengatik tratu okerragoa jasotzea.

Erakundekoak ez diren laguntzarako pertsona erreferenteak: adimen-degaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen laguntzeko erakundetik kanpoko pertsonak.

Eroskeria: eskudirua edo baliozko edozein objektu ematea edo jasotzea norbaitek modu 'desegokian' joka dezan lortzeko (askotan, emaitza onura pertsonal bidegabekoa lortzea da). Ez da beharrezkoa balio-transakzioarek egitea; eskaintza edo promesa hutsa nahikoa da legea urratzeko.

Funtzionario-eroskeria: agintari, funtzionario publiko edo funtzio publikoan parte hartzen duen pertsona bati oparia edo ordainsaria edo beste edozein motatakoa eskaintzea edo ematea bere karguari datzekion betebeharren aurkako egintza bat egin dezan.

Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak: desgaitasuna izanik laguntzeko edo beren ordezkari aritzeko pertsona edo erakunde bat ezarrita duten pertsonak.

Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza emateaz arduratzen diren pertsonak edo erakundek: desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza ematen dieten edo haien ordezkari aritzen diren senitartekoak, lagunak edo profesionalak.

Interes-gatazka: edozein egoera non Lantegi Batuakeko pertsona batek arriskua duen bere interes pertsonalak (politikoa, enpresariala, komertziala, ekonomikoa, laborala, familiarra, etab.) edo berarekin harremana duten pertsonenak Lantegi Batuak interes legitimoak oztopatzeko edo oztopatu ahal izateko.

Interes-taldea: pertsonak edo erakundek, Lantegi Batuakeko zuzeneko edo zeharkako interesa dutenak, bai erakundearen eragina izan dezaketelako bai erakundek haiengan eragin dezakeelako. Barneko interes-taldeak erakundea osatzen duten pertsonak dira. Kanpoko interes-taldeak, berriz, jabeak (akziodunak), inbertitzaileak, bezeroak, hornitzaileak, aliatuak, erakunde publikoak eta komunitateko edo gizartearen ordezkariak.

Jabetza intelektual: egileei eta beste titular batzuei (artistak, ekoizleak, irratidifusio erakundeak...) dagozkien eskubideen multzoa, haiek sortutako obrei eta prestazioei dagokienez: markak, logotipoak, egile-eskubideak, sekretu komertzialak, ideiak, asmakizunak, kontzeptuak, laneko produktuak, teknologiak, ezagutza teknikoak eta patenteak.

Jabetza industrial: bai produktu, prozedura edo diseinu berrietan adierazitako jardura berritzailea bai merkataritza-jardura babesten dituzten eskubide eskusiboen multzoa, merkaturaren eskaintako produktuak eta zerbitzuak eskusiboki identifikatuz.

Jazarpena prebenitzeko protokoloa: Lantegi Batuak dagoen pertsona batek lantokian jazarpen psikologikoa, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutakoa gertatzen denean zer egin behar duen azaltzeko dokumentua.

Kapital-zuriketa: delitu-jatorriko ondasunei edo aktiboei legitimitate- edo legezkotasun-itxura ematera bideratutako mekanismo edo prozeduren multzoa.

Kide Anitzeko Organoa: erakundeko hainbat pertsonak osatutako lantaldea, Lantegi Batuakeko Kontseilu Betezarrekoak KANALANeko jakinarazpenak kudeatzeko izendatua.

Ustelkeria: dela sektore publikoan, dela pribatuan, abantaila pertsonal edo enpresarial bidegabekoa lortzeko botere- edo posizio-abusua dakarren jardura.